

AHOLKU SAREAren **MEMORIA**

“Atzeritartasunaren alorrean
aholkularitza juridikoa eskaintzeko
euskal Sarea”

2016

AURKIBIDEA

1.- AHOLKU-SAREAREN JATORRIA eta XEDEA

2.- JARDUERA PRINTZPIOAK: arreta; erabiltzaileen profila; egituraketa, barneko/kanpoko sarea eta egituratzaile soziala

3.- ZERBITZUAREN EGITURAKETA: ESKU HARTU DUTEN ERAGILEAK

3.1.- Gizarte-erakundeak

3.2.- Abokatuen Elkargoak

3.3.- Biltzen -Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua-

3.4.- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila – Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza-

4.- EKIMENAK 2016

5.- EBALUAZIOA 2016

6.- 2017rako ILDO NAGUSIAK

7.- ONDORIOAK

1.- AHOLKU-SAREAREN JATORRIA eta XEDEA

Arreta juridikoko zerbitzu honek «Heldu» izeneko aurreko zerbitzuaren lekukoa hartu du, hura itxi ostean; 2010eko bigarren seihilekoan ekin zion ibilbideari eta 2011. urte hasieran eman zituen lehen urratsak.

Aholku-Sareak, Eusko Jaurlaritzako zerbitzua den aldetik, **lehen hurbilketa batean oinarritzen du helburua**; atzerriartasunaren arloan aholkularitza juridikoa ematen die kalteberetasun egoeran dauden etorkinei eta administrazio publikoko langileei eta gizarteratze-prozesuetan lan egiten duten hirugarren sektoreko gizarte-erakundeei ere.

Horrekin guztiarekin erregularizazioa erraztu eta EAeko etorkinen gaineratutako irregulartasuna saihestu nahi da, familian bizitzeko eskubideaz baliatzeko erraztasuna ematen saiatuz; izan ere, familia-loturak edukitzeak atzerriarren sarrera, egoitza eta lanerako baimena lortzeko aukera ekar dezake zenbaitetan, familian bizitzea ahalbidetuz.

Gizakia euskal politika publikoa informatzen duen gune eta printzipio gisa hartzeak, Euskadiko etorkinen kolektiboa euskal gizarte integratzailearen parte gisa hartzera eramaten du, kultura eta ekonomia aberastasunari dagokionez balio izugarria duen giza kapitala adieraziz.

2.- Aholku-Sarearen jarduera-printzipioak

Hauek dira Aholku Sarearen barne -nahiz kanpo- funtzionamendua arautzen duten jarduera-printzipioak:

→ Ekintza hainbat esku-hartze mailatan banatzen duen zerbitzua; zuzenekoa edo aurrez aurrekoa eta zeharkakoa edo telematikoa.

→ Erabiltzaile mota desberdinei erantzuna ematera bideratua.

→ Esku-hartze maila ezberdinei erantzuna emateko, profila kontuan hartuta hautatutako eta partaidetzazko egitura zabala osatzen duten hainbat eragiletan oinarrituta egituratua: zuzenekoa eta zeharkakoa edo bigarren mailakoa.

Xede horretarako, prestatutako sistema hiru ardatz nagusitan oinarritzen da, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak koordinatuta: Gizarte-erakundeak, Abokatuen Elkargoak eta Biltzen:

- **Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza**, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Saila
- **Biltzen** - Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua
- Itunpeko **zazpi gizarte-erakunde** (Cear-Euskadi; Gurutze Gorria-Euskadi, Bilboko Elizbarrutiko Caritas, Kosmopolis, SOS-Arrazakeria Gipuzkoa, LAIZ-CCOO eta Adiskidetuak)
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **Abokatuen** hiru **Elkargoak**

→ **Lurralde-estaldura zabala:** aurrez aurreko aholkularitza ematen duten gizarte-erakundeen **lurralde-banaketa** hau da:



→**Sarean** egiten da lan: Aholku Sarea hainbat eragileren artean egituratuta dago eta horiek ikuspegi bakarra partekatzen dute, bai diskurtsoari, bai erreferentziari dagokionez.

→**Barne- eta kanpo-koordinazioan.** "**Barneko**" moduan **jarduteko adostasunean islatzen da, nahiz eta eragile bakoitzak "katedra"** edo ikuspegi askatasuna duen lanaren egunerokoan aurre egin beharreko kasu praktikoetan. Kanpora begira, erreferentziazkoak diren bestelako zerbitzu edo erakunde publikoekiko koordinazioan eta lankidetzan egiten da aurrera: **Harresiak Apurtuz, Ertzaintza, Emakunde, Lanbide...**

→Erantzukizun publikoko zenbait alorren **egituraketa alor sozialeko** erreferentziazko profesionalen **bidez**: Aholku-Sareak eskaintzen duen aurrez aurreko arreta gizarte-erakundeetan eta Abokatuen Elkargoetan oinarritzen da nagusiki. Ildo horretatik, erakundeok elkarren artean sendotzen dira, eta Administrazio Publikoak, kasu honetan Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren bitartez, immigranteen bizitza normalizatzerako bideratutako politikak sustatzen ditu.

→Herritar guztiei zuzendutako **gailu** den aldetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntza publikoaren mendeko zerbitzua da, integratzeko xede argia duena atzeritarren egoera administratiboa normalizatuz.

→Zerbitzu-kontzientzia, osatzen duten eragileen artean **dinamika osagarri eta elkarren mendeko** gisa, herritarrei bideratua integratzeko xede argiarekin.

→**Feedbackean oinarrituta**: Aholku-Sarea osatzen duten eragileek horrek jatorrian dituen politika publikoak berak hornitu ere egiten dituen gailu edo sistema osatzen dute, jarraibide orokorrei buruzko informazioa eguneratuz eta Euskadiko migrazio-fenomenoaren egoerari buruzko diagnosi eguneratu eta zehatzagoa egiteko elementu gisa baliatuz.

3.- ZERBITZUAREN EGITURAKETA, HORI OSATZEN DUTEN ERAGILEEN ARABERA

3.1 Gizarte-erakundeak

ADISKIDETUAK

Adiskidetuak taldea **soldatapeko langileek eta boluntarioek** osatzen dute; eta eginkizunak elkarri lotuta daude.

Adiskidetuak taldea honako hauek osatzen dute:

- **Abokatua:** Idoia Ikardo
- **Abokatua:** Rocío Calderón
- **Administrazioa, kontabilitatea eta laguntza:** Karla Zavala

Kasu honetan, zerbitzua Irunen kokatutako zentrotik eskaintzen da –lan eremua Irun, Oarsoaldea eta Donostialdea izanik-, astean bost egunetan.

2016ean **1.128** erabiltzaile artatu dira guztira (**739 emakumezko eta 389 gizonezko**).

40 herrialdetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak, gehienak neskameak, etxeko zerbitzuen alorreko eskaera handia dela-eta.

Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Nikaragua, Kolonbia, Maroko edo Ucraina**.

2016ean administrazioko **9 profesional** artatu dira.

Aurten **12 kasu desbideratu** dira Gipuzkoako Abokatuen Elkargora.

Azkenik, azpimagarria da entitateak arreta emandako enplegu-emaile kopurua haundia, hai zuzen ere 55 enplegu-emailei eman die arreta (58 kontsulta, 38 emakumeek egindakoak eta 20 gizonezkoak).

LAIZ-CCOO

Egoera larrian bizi ziren langile-etorkinei aholkularitza juridikoa eskaintzeko jaio zen Cite elkartea. Gaur egun, urte askotako eskarmentua barneratu eta gero, lan esparruan informazioa, orientazio eta aholkularitza eskaintzen duen erreferentziazko puntuan bilakatu da.

Proiektuaren exekuzioan **bi abokatu** hartzen dute parte.

- **Abokatua:** Paloma Merino
- **Abokatua:** Mayra Colado

Kasu honetan, zerbitzua Bilbon kokaturiko zentrotik eskaintzen da –lan eremua Bizkaia osoa izanik-, astean bot egunetan. Erabiltzaile gehienak Bilbotik eta Bilbo ingurutik etorri dira edo bertan bizi dira, beste eskualde batzuetatik ere etorri diren arren, neurri txikiagoan bada ere.

2016ean **2.069** erabiltzaile artatu dira guztira (**967 emakumezko eta 1.102 gizonezko**).

Etortzen diren pertsonen hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, hala ere herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Bolivia, Maroko, Kolonbia, Paraguay, Honduras eta Senegal**

2016ean administrazioako **364 profesional** artatu dira.

Aurten **55 kasu desbideratu** dira Bizkaiko Abokatuen Elkargora.

KOSMOPOLIS

Boluntarioek eta profesionalak osatzen dute elkarte eta horien helburu nagusia migrazio-jatorri ezberdina duten komunitateen arteko bizikidetza eta kultura-artekotasun harremanak erraztea da (gizarteratze-prozesuak bultzatuz).

Kospomoliseko taldea honako hauek osatzen dute:

- **Abokatua:** Miguel Angel Viñas
- **Lehen arreta:** Josu Erdozain

Kasu honetan, zerbitzua Getxon kokatutako zentrotik eskaintzen da –lan eremua Uribe Kosta izanik-, astean bost egunetan.

2016ean **1.034** erabiltzaile artatu dira guztira (**726 emakumezko eta 308 gizonezko**).

2016ean administrazioko **99 profesional** artatu dira.

Aurten **13 kasu desbideratu** dira Bizkaiko Abokatuen Elkargora.

40 herrialdeetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Bolivia, Nikaragua, Honduras, Colombia, Paraguay, Marruecos, Senegal edo Peru.**

GURUTZE GORRIA - EUSKADI

Boluntarioek eta profesionalak, eta atzerritar eta bertako jatorria dutenek, osatzen dute elkarte eta horien helburu nagusia migrazio-jatorri eta tokiko jatorri ezberdina duten komunitateen arteko bizikidetza eta kultura-artekotasun harremanak erraztea da.

Zerbitzu hori bultzatze aldera, Gurutze Gorria - Euskadik gaian **adituak diren 7 abokatu** ditu eta zerbitzuak ondo funtzionatzen laguntzen duen boluntarioen taldea.

Gurutze Gorriko taldea honako hauek osatzen dute:

- Abokatua: **Lucía García (Araba)**
- Abokatua: **Montserrat Masot (Araba)**
- Abokatua: **Raquel Pacho (Araba)**
- Abokatua: **Iñigo Portilla (Bizkaia)**
- Abokatua: **Artzai Pina (Bizkaia)**
- Abokatua: **María Álvarez (Gipuzkoa)**
- Abokatua: **Idoia Labayen (Gipuzkoa)**

Kasu honetan, zerbitzua Bilbo, Donosti, Gasteiz, Eibar, Ondarrua, Portugalete, Getxo, Agurain, Laudio, Espejo, La Guardia eta kanpezu kokatutako zentruetatik eskaintzen da zerbitzua -lan eremua Euskal Autonomi Erkidego osoa izanik-.

2016ean **2.244** erabiltzaile artatu dira guztira (**970 emakumezko eta 1.274 gizonezko**)

2016an administrazioko **663 profesional** artatu dira.

Aurten **124 kasu desbideratu** dira Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Abokatuen Elkargoetara.

70 herrialdeetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Maroko, Senegal, Bolivia, Argelia, Colombia edo Nigeria**

CEAR-EUSKADI

Immigranteak eta bertakoak daude elkarte osatzen duten profesionalen eta boluntarioen artean.

Kasu honetan, zerbitzua Gasteizen kokaturiko zentrotik eskaintzen da, astean bi egunetan.

Honako hauek osatzen dute Cear taldea:

- **Koordinatzailea:** Javier Canibel
- **Abokatua:** Miguel Angel Viñas
- **Abokatua:** Suniva Martinez

2016ean, **627** erabiltzaile artatu dira guztira (**274 emakumezko eta 353 gizonezko**).

Aurten **35 kasu desbideratu** dira Arabako Abokatuen Elkargora.

50 herrialdeetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitateetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Maroko, Nigeria, Sahara, Pakistan, Dominikar Errepublika eta Kamerun.**

CARITAS

Bilboko Caritaseko zerbitzu juridikoa 1990. urteaz geroztik eskaintzen da, Hurbil abokatuen bulegoarekin sinatutako zerbitzuen errentamendu kontratuaren bidez.

Kasu honetan, zerbitzua Bilbon kokatutako zentrotik eskaintzen da –lan eremua Bizkaia osoa izanik- astean bi egunetan.

Taldea honetan parte hartzen dute:

- **Koordinatzailea: Susana Cuesta**
- **Abokatua: Genma Escapa,**
- **Abokatua: Juan Carlos Pablo**

2016ean **343** erabiltzaile artatu dira guztira (**173 emakumezko eta 170 gizonezko**).

2016ean administrazioko **76 profesional** artatu dira.

Aurten **25 kasu desbideratu** dira Bizkaiko Abokatuen Elkargora.

Guztira, **45 nazionalitatetako** pertsonak bertaratu dira. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Brasil, Honduras, Nicaragua, Pakistan, Marruecos, Senegal, Bolivia eta Sahara**

SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA

1993. urtean jaiotako elkarte. Immigranteak eta bertakoak daude elkarte osatzen duten profesionalen eta boluntarioen artean.

Kasu honetan, arreta eta aholkularitza zerbitzua Gipuzkoan eskaintzen da asteen lau egunetan (Errenteria, Zarautz, Beasain eta Arrasaten). Atzerritartasunaren alorrean ibilbide luzea duen abokatuak artatzen du egunero.

Honako hauek osatzen dute SOS-Arrazakeria taldea:

- **Koordinatzailea: Mikel Mazkianan**
- **Abokatua: Ane Iturbe**

2016ean, **488 erabiltzaile eta 40 profesional** artatu dira.

Aurten **14** kasu desbideratu dira Gipuzkoako Abokatuen Elkargora.

35 herrialdetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Brasil, Honduras, Nicaragua, Maroko, Pakistan, Nikaragua, Senegal eta Sahara.**

3.2.- Abokatuen Elkargoak

Sarrera

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoak zuzenbide publikoko eta irabazi-asmorik gabeko korporazioak dira eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko abokatuen kolektiboek osatzen dituzte. Elkargo horiek alde batetik, funtzio publikoa betetzen dute, hau da, Konstituzioan adierazitako Zuzenbidearen Estatu sozial eta demokratikoa babesten dute eta giza eskubideak indartu eta babesten dituzte, eta Justizia Administrazioaren funtzionamendua ere sustatzen eta hobetzen ahalegintzen dira; bestalde, funtzio soziala betetzen dute, herritarren interesen alde ahalik eta zerbitzu onena eskaintzen dutelako, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak defendatzen dituztelako eta doako laguntza-zerbitzua hobetzean lan egiten dutelako etengabe.

Euskal zerbitzu juridiko honen bitartez honako hau bilatzen da: kalteberatasun-egoeran egonik bere dokumentazioa izapidetu behar duen biztanleria etorkinari gizartean integratzeko laguntza-sistema ezartzea; izan ere, kasuen konplexutasunagatik, zehaztasunagatik eta eskatzen duten denboragatik eta etorkinen baliabide ekonomikorik ezagatik gaur egun laguntza hori, gizarte-erakundeekin batera, abokatuen elkargoek eskain dezakete, atzeritartasun-gaietan espezializatuta dauden abokatuen bitartez, hain zuzen ere.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, 2016. urtean Abokatuen Elkargoek eskainitako zerbitzuak hauek izan dira:

- Egindako desbideratzeen kopurua: **312 (355 izapidetuak)**
- Desbideratzeen kopurua, **kontsulta** moduan: **34**

- Desbideratzeen kopurua, **izapidetze** moduan: **45**
- Desbideratzeen kopurua, **errekurtso** moduan: **233**

Zehazki, **Bizkaian 195, Gipuzkoan 84 eta Araban 33 zerbitzu kudeatu dira.**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetako atzeritartasuneko txanda espezializatua 400, gutxi gora-behera, abokatuz osatuta dago gaur egun.

Hauek dira letraduek gara ditzaketen ekintza espezifikoak:

- **Kontsultak:**
- **Izapidetzeak**
- **Errekurtsoak**
- **Gainera**, zerbitzuak bildu dezake izapidetzearen + errekurtsoaren konbinaketa bat.

Nolanahi ere, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak erabakiko du zein kasu desbideratuko diren Abokatuen Elkargoetara.

Abokatuen Elkargoen ordezkariak dira.

Bizkaiko Abokatuen Elkargoa: **Inmaculada Pérez**

Arabako Abokatuen Elkargoa: **Iñaki Eguiluz**

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa: **Arantxa Arocena**

3.3.- Biltzen – Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua

Immigrazio, herritartasun eta kultura arteko bizikidetzari buruzko euskal politika Biltzen baliabide teknikoaz baliatzen da euskal herritar guztien integrazioa bultzatzeko, jatorria, hizkuntza, erlijiozko kidetzapena eta abar albo batera utzita.

Era berean, kultur aniztasunaren eta bizikidetzaren kudeaketan hartzen du parte herritarren ikuspegi inklusibotik eta baita diskriminazioaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan ere.

Biltzen elkarteak zeharkako planteamenduaren mendea garatzen du bere jardura, euskal gizarteko hainbat sektoretan diharduten administrazio eta eragileei lagunduz: enplegua, osasuna, etxebizitza, kultura eta abar.

Jabetza publikoko zerbitzu hori 2004. urtean sortu zen Immigrazioko lehen Euskal Planaren babesean eta 2010. urtean txertatu zen zerbitzuan alor juridikoa, eta horixe txertatu da esku hartzeko bigarren mailako eragile gisa Aholku-Sarea Zerbitzuan.

Biltzen elkarteko alor juridikotik aholkularitza-zerbitzuak garatzen dira euskal politika publikoetako ekimenen, proiektuen, zerbitzuen eta kudeaketa-sistemen definizioan, abiaraztean eta ebaluazioan, hain zuzen ere:

- Prestakuntza-planak prestatzeko aholkularitza; jardunaldi teknikoak zerbitzuko erreferentziazko alorretan.
- Euskarri, material didaktiko eta dibulgazioko materialen prestaketa atzerriartasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean.
- Atzerriartasunari buruzko informazioa eta aholkularitza juridikoa eta Aholku-Sarearen barruan espezializatutako baliabideetara desbideratzea, hau da, Abokatuen Elkargoetara eta Aholku-Sarea osatzen duten gizarte-erakundeetara.
- Atzerriartasunari buruzko informazio-saioen programaren kudeaketa, Aholku-Sarearen barnean.

- Kudeaketa eta esku-hartzea hobetzera bideratutako eta administrazio publiko, hirugarren sektore, elkarte eta abarretako profesionalei zuzendutako prestakuntza-zerbitzuak.

Aholkulari hauek osatzen dute alor juridikoa:

- **Leire Garrastatxu (abokatua)**
- **Nuria Martínez (abokatua)**
- **Pablo Pascual (abokatua)**

BILTZENek **1.610** profesional (792) eta partikularren (818) kontsultak erantzun ditu; **84** administrazio, erakunde publikoei eta **64** hirugarren sektoreko erakundeei erantzun die, etorkinei arreta emateko prozesuetan lagunduz.

3.4.- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila-Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza-

Aipatutako Zuzendaritzaren eginkizun nagusia zerbitzuaren funtzionamendua bateratzea, bultzatzea eta dinamizatzea da. Azken batean, baliabide horren funtzionamendu egokia bermatzen ahalegintzea, alderdi positiboak bultzatuz eta indartuz eta egon daitezkeen gabezien aurrean zuzenketa-mekanismoak bideratuz eta finkatuz.

4.- EKIMENAK 2016

Barne eremuan:

1.- Laneko bilerak

1.- 2016. urtean **osoko 8 bilkura** egin ziren (2016/01/16; 2016/02/26; 2016/03/18; 2016/04/22; 2016/05/27; 2016/06/10; 2016/09/30 eta 2016/12/16), **3 lurralde-bilera** (2016/10/30; 2016/11/4 eta 2016/11/30) eta **Zuzendaritza eta elkargoen arteko bilera 1** (2016/03/06).

Bilera guzti gauen **gai ordena** eta **edukia** Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Web-orrian eskegita daude.

2.- Prestakuntza

2016. urtean prestakuntza-prozesu hauek antolatu ziren:

A.- **Immigrazioaren errealitatea Euskadin** (2016/02/13). **Gorka Morenok** eskaini zuen (Aholku-Sarearen taldeari).

B.- **Naziokotasuna eskuratzea**(2016/06/23). **Asier Basagoitik** eskaini zuen (26 laguni).

D.- **Atzerritartasuna eta Espetxe Zuzenbidea” Espetexe zuzenbidea eta atzerritartasuna: ibilbide osoa (atxilotua zarenetik, espetxean iragandako tartea eta askatasuna agindu eta gero”** (2016/11/21). **Cristina Almeidak** eskaini zuen (65 laguni).

E.- **Estatu-abokatutza “Atzeritarren alderdi praktiko legalak eta jurisprudentziakoak eskubideen eta askatasunaren esparruan Espainian”** (2016/12/13). **Iñaki Ferrarasek** eskaini zuen (35 laguni).

3.- Gai teknikoen azterketa

Bileretan, gai teknikoei buruz hausnarketa egiteari denbora gehiago eskaini zaio azken bi urteotan. Hobetu egin da.

Bileren lehenengo zatian, eguneroko gai teknikoak aztertzen eta eztabaidatzen dira.

4.- Barne lotura

Aurrerapen nabarmenena gauzatu da. Agian aurrerapen garrantzitsuena da. Taldea osatzen duten pertsonen arteko harremanak indartu dira.

Eguneroko lanak, elkarren arteko begiruneak, konfiantzak eta pertsona oinarri duen ikuspuntuak biltzen gaitu. Horrela Zerbitzu honek duen altxorrik preziatuena bere lan-taldea da. Ildo beretik, Bizkaiko eta Gipuzkoako taldeek whatsapp talde bana sortu dute, lana errazteko bidean.

Kanpo eremuan

A.- Harresiak Apurtuz

Ekainaren 1ean urtero burutzen den bilera egin zen. Honetan 2015. urtean egindako ekimenen berri eman zitzaion eta 2016. urterako aurreikusitako plangintza azaldu zitzaion.

Bilera oso positiboa da. Bestetik, ezin dugu ahaztu, SOS-Arrazakeria izan ezik, Aholku-Sareko beste elkarte guztiak koordinadoraren parte direla (Gurutze Gorria, Cáritas, Laiz-CCOO, Kosmopolis y Cear).

B.- Ararteko

Martxoaren 1ean urtero burutzen den bilera egin zen –Itziar Barrenkua, (pertsona atzerritarren arduraduna) eta Faustino Foronda (Instituzioaren idazkaria)-. Honetan 2015. urtean egindako ekimenen berri eman zitzaion eta 2016. urterako aurreikusitako plangintza azaldu zitzaion.

Bilera oso positiboa da. Itziarrek Gurutze Gorriaren bitartez zerbitzuarekin harreman zuzena duela azpimarratu zuen eta zuzendariari igortzen zitzaizkion gai ezberdinak jorratu zituen.

C.- Munduko Jendeak

Maiatzaren 8an urtero burutzen de bilera egin zen. Honetan 2015. urtean egindako ekimenen berri eman zitzaion eta 2016. urterako aurreikusitako plangintza azaldu zitzaion.

Bilera oso positiboa da. Elkarrekin lan egiteko proposamena adierazten dute, bereziki txostenen esparrua azpimarratzen dute.

D.- Arabako Foru Aldundia

Uztailaren 19an bilera egin zen Arabako Foru Aldundian lan egiten duten langileekin (12 pertsona). Honetan Zerbitzuaren funtzionamendua azaldu zitzaien eta biltzen dituen errekursoak azaldu zitzaizkien.

Bilera oso positiboa da. Jadanik, zerbitzua, Gurutze Gorriaren bitartez, erabiltzen dute.

E.- **Leioa udaleko arreta juridikoa eskaintzeko zerbitzua** (Bidea eginez – José Zarauz- bitartez kudeatuta). Bi bilera izan ziren (uztailaren 21ean eta urriaren 18ean). Oso positiboak izan dira eta “*bere bezeroak*” zerbitzura bideratzeko bideak aztertu ziren.

F.- **Jatorkin elkarte**. Elkarre honetako ordezkariarekin bi bilera egin ziren. (urriaren 3an eta abenduaren 15ean). Ordezkariak bere elkartera hurbiltzen diren erabiltzaileei arreta juridikoa eskaintzeko dituen zailtasunak azaldu ditu. Kasua aztertzen jarraitzeko konpromisoa hartu da.

2.- Informazio-liburuxka bidezko hedapena

Zerbitzuaren funtzionamendua argitzeko eta harremanetarako erreferentziak zehazteko, informazio-liburuxka bat landu egin zen. 2016. urtean beste tirada bat egin zen.

Informazio-liburuxka berri bat lantzen ari da. Honen bitartez zerbitzuak arreta eskaintzen dituen tokiak zehaztasun handiarekin adierazteko asmoa dago. Liburuxka honetan hiru lurralde historikoen mapa agertzen da eta entitate bakoitza arreta ematen duen toki zehatza ezartzen da. Kasu guztietan harremanetarako telefono adieraziko da.

3.- Logoa

Hezkuntza esparruan zerbitzua sustatzeko lehiaketa bat egiteko aukera aztertu egin zen. Aurten ezin izan da burutu. Hurrengo urtean ekimena berriro aurkeztuko da

4.- Web-orria

Sailaren Web-orria (Aholku-Sarearen atala) eguneratu egin da. Bertan, Zerbitzuaren funtzionamendua, informazio-liburuxkak, memoriak, bilera-aktak eta Zerbitzuaren funtzionamendua azaltzeko landutako bideoa (2014. urtea) txertatu dira.

5.- Azpiordezkaritzekin harremana

Aholku-Sareko kide eta hiru azpiordezkaritzen izenean (batez ere Bizkaiko eta Gipuzkoakoekin) dihardutenen arteko komunikazio-bideak zabaltzeko eta mantendu dira.

Apirilean eta maiatzean Bizkaiko eta Arabako azpiordezkaritzetara bilera bat izateko proposamena luzatu zitzaion. Hauteskundeak zirela bileren data atzeratzeko proposamena egin zuten. Espainiar gobernu berria osatu bezain pronto, bilera berri bat eskatuko zaie.

6.- Saio Informatiboak

Atzeritarrei eta bertakoei (enplegatzaileak eta abar) zuzendutako atzeritarren arloko informazio-saioen programa mantendu egin da. Guztira, 27 saio egin dituzte EAEko 8 udalerritan (Bilbo, Donostia, Durango, Eibar, Ermua, Getxo, Villabona eta Zarautz) eta 690 lagun joan dira horietara.

DATU ESTATISTIKOAK 2016

- **Hirugarren sektoreko erakundeek arreta emandako pertsonen kopurua:** 7.935
- **Hirugarren sektoreko erakundeek arreta emandako profesionalen kopurua:** 1.247
- **Biltzenek arreta emandako kontsulten kopurua:** 1.610
- **Hirugarren sektoreko erakundeek eskainitako informazio-saioak:** 27 (690 erabiltzaile)
- **Abokatuen elkargoetara bideratuak:** 312 (355 izapidetuak)

2016	Pertsonak- gizonak	Pertsonak emakumeak	Kontsultak- gizonak	kontsultak- emakumeak	Profesionalak- gizonak	Profesionalak- emakumeak
BIZKAIA	1889	2152	3192	4044	237	467
GIPUZKOA	973	1193	2336	3578	47	183
ARABA	988	740	2061	1960	83	230
EUSK	3850	4085	7589	9582	367	880

5.- EBALUAZIOA 2016

2016. urteari amaiera emateko, abenduan, **2016.** urteari zegokion ebaluazioa egin zen eta bertan 2015eko ebaluazioan azpimarratutako alderdi positiboak azpimarratu ziren berriro ere. Zerbitzuaren ahultasunen artean batzuk oraindik ere jarraitzen zutela nabarmendu zen eta beste batzuk dagoeneko konponduta zeudela azpimarratu.

2016. urteko ebaluazioa hau izan zen:

Zerbitzuaren indarguneen artean hauek dira aipagarriak:

- 1.- Aholku-Sareak oinarri dituen irizpideei jarraiki, Sareak ondo funtzionatzen du.
- 2.- Sistemaren parte-hartze zabala duen egituraren oinarritzen da.
- 3.- Abokatuen elkargora deribazioa proposatu eta gero, abokatuaren izendapena oso arina da.
- 4.-Zerbitzuko agenteen barne funtzionamenduari eta autonomiari errespetua.
- 5.- Zerbitzura jotzeko dauden aukeren dibertsifikazioa.
- 6.- Zenbait kasutan, arretak dimentsio integralagoa hartzen du; hertsiki juridikoa (enplegua, laguntzak...) denaz haratagoko hainbat alderdi jasotzen ditu.

7.- Aholku-Sarearen lan taldearen kideen arteko harremanak indartu eta hobetu dira.

Indartu beharreko aspektuak:

1.- Zerbitzuaren difusioan eta agerpenean sakondu behar dugu. Bestetik solaskidetza esparruak hobetu behar dira (Lanbide, Eudel, Hezkuntza,.). Zentzu horretan erabiltzaileak mugitzen diren "merkatuak" aztertu behar ditugu eta urrun geratzen diren horietara heltzeko baliabide eraginkorrak diseinatu.

2.- Zerbitzuko agenteei zuzendutako prestakuntzan sakondu behar dugu.

Eguneroko beharrei erantzun zuzena ematekoa asmoz, edukiak eta ezagupenak gaurkotu behar dira. Horrekin batera, kualitatiboki garrantzitsua den informazioa eskuratzeko baliabide sinple eta eraginkorrak eskuratu behar ditu.

3.- Zerbitzua sendotzea, finkapena eta iraupena lortze aldera.

4.- Espainiako Estatuan eta European erreferenteak diren esparru ezberdinetan parte-hartzea bultzatu behar da.

5.- Elkargoen egokitzapena indartzea Zerbitzuaren testuinguruan; hain zuzen ere, hiru Saje txandak osatzen dituztenen eta Aholku-Sareko gainerako abokatuen arteko lotura.

6.- Bilboko eskualdean eskainitako aurrez-aurreko arreta indartu beharko litzateke. Batzutan, gizarte eragileak lanez gainezka daude

7.-Gizarte eragileek jasotzen duten zenbatekoak eguneratu beharko lirateke, eta 212. urtean galdutako %7a berreskuratzea ezin hobea litzateke.

6.- 2017rako ILDO NAGUSIAK

1.- Hedapena-Solaskidetza-Ikusgaitasuna

1.1.- **Helburua:** Erabiltzaile izan daitezkenei zerbitzuaren berri ematea; bereziki egoera zaurgarrienean daudenei.

1.-Hedapenarekin jarraitu:

- * Lanbiden
- *Oinarrizko gizarte zerbitzuetan-Immigrazioko teknikariak
- *Atzeritarren bulegoetan
- * Arartekotzan

2.- Hedapenerako **baliabide berriak** aztertu:

- *Tresna berrien bideragarritasuna aztertu
- *Bideo berri bat egin: Iraupen motzagoa, eguneratua eta erakargarriagoa
- *Informazio-liburuxka erabiltzen jarraitzea; erabiltzaileei emanaz eta bileretan zabalduz.

3.- LOGO- Lehiaketaren aukera aztertu

2.- Prestakuntza

2.1.- **Helburua:** Zerbitzuko partaideen ezagupen maila eta jarduteko moduak hobetu. Funtsezko informazioa eskuragarri izan.

2.1.1.- Barne-prestakuntzekin jarraitu:

* Proposatutako gaiak

- Europar zuzenbidea-Familia zabala
- Administrazio zuzenbidea arautzen duen legediaren aldaketaren berri eman
- Izapide telematikoa –Erreforma orokorra
- Bakarrik dauden adingabeak
- Inmigrazioko eta Emigrazioko Idazkaritza Orokorra
- Gatazken irtenbidea eta denboraren kudeaketari buruzko Ikastaroak
- Prozedura zigortzailea –Estatuan eta Europan-

2.1.2.-Bileretan aztertzen diren kontuekin **Bademecum** bat egitea eta “jardunbide egokiei buruzko” gida bat egitea.

3.- Lan taldearen barne kontsolidazioa

3.1.- **Helburua:** Barne komunikazioa eta Zerbitzuaren funtzionamenduaren eraginkortasuna hobetu.

3.1.1.- **Gaiaren arabera lan taldeak egin.** Hauen bitartez informazioa trukatu da, prestakuntza ikastaroen berri eman, gaiak proposatu...

3.1.2.- **Plataforman hodei bat** sortzea (dokumentuak, artikulak, helegiteak... gordetetzeko).

3.1.3 .- Barne funtzionamendua arautzen duen **protokolo** bat adostea.

3.1.4.- Arreta juridikoaren esparruan, **Nafarroa eta Euskadiren arteko topaketa-lankidetza marko** bat burutzeko proposamena. Beste erkidego batzuekin lantzeko aukera.

4.- Beste kontu batzuk:

4.1.- Atzerritarren bulegoek landutako datu estatistikoak.

4.2.- Erabiltzailei inkesta egiteko proposamena.

4.3.- Zerbitzua Bilbon indartzeko proposamena.

4.4.- Jardunaldi bat lantzeko proposamena –erabiltzailekin harremanak estutzeko helburuz-.

4.5.- Abokatuei inkesta egiteko proposamena.

7.- ONDORIOAK

Aholku-Sarea, egindako ia zazpi urteko ibilbidearen ostean, herritarren zerbitzurako tresna baliagarri gisa finkatu da, eta eskainitako datu estatistikoen bitartez topatutako errealitatearen eta egungo Atzerriartasuneko Euskal Zerbitzu Juridikoaren tamaina eta erabilgarritasunaren ideia erakutsi digu. Hori guztia gizarte inklusiboa eraikitzearen alde, etorkinen kolektiboaren gizarteratze eraginkorraren berme gisa, ahal den neurrian gizarte-bazterketako egoerak saihestuz eta bizitza duinerako irisgarritasuna erraztuz.

Herrialde batek adierazpen gorena elementu integratzaile gisa gizarte-kohesioaren bitartez soilik lortzen duela baloratuz, azpimarratzekoa da Aholku-Sarea, bertan parte hartzen duten erakunde eta abokatuen elkargoen bitartez lankidetzaz eta partaidetzazko kontzeptuarekin lerrokatzen dela alor publikotik eta pribatutik.